

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroak eta hauen ezaugarriak:

Bezeroen segmentazioaren arabera gure enpresa merkatu dibertsifikatu baten parte dela esan dezakegu. Mugikorreko aplikazio batetaz hitz egiten ari garenean, automatikoki gazte jendearen irudia etortzen zaigu burura. Egia da gure bezeroen portzentaia handi bat gazte jendea izango dela baina gaur egun adin nagusiagoko jendeak ere, hala nola, 60 urtetik gorakoak, mugikorra erabiltzen dute. Beraz, gure aplikazioa erabili ahalko dute.

Bizitza ekologiko baten bila dagoen jendea da gure xede publikoa. Beraien bizimodua aldatzeko prest daudenak, bai eta lurrarekin adiskidetasunean bizitzeko ere. Bestalde, erronkak gainditzeko prest dagoen jendea behar dugu, aplikazioak dituen eguneroko eginbeharrak motibazioz bete ditzaten.

Egun hauetan, oso ohikoa da ume txikiak aparatu elektronikoekin ikustea, hauen gurasoak umeak entretenitzeko erabiltzen bitituztelako. Arrazoi honengatik, gure aplikazioak umeentzat zuzenduta dagoen gunere bat izango du. Gure horrek, bizitza ekologiko bat izateko oinarrizko jakintza emango dien jokuak izango ditu, adibidez: (elikagai aproposenak zeintzuk diren, nola birziklatu, eta abar.) era dibertigarri batean ikas dezaten zertan datzan bizitza ekologiko bat eramatea.

Jubilatuentzat, berriz, beraien etxetik gertu dauden eremu ekologikoetan deskontuak eskeiniko zaizkie, herriko denda lokalak izango dira hauek. Modu honetan, herriko merkataritza sustatuko da eta hedadetuentzat erosketak egitea errazagoa izango da.

